



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2019ko urriaren 24an Udal Batzarrak buruturiko ezohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta bederatzi korporakide bildu dira; batek ezin etorria adierazi du.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

1.- 2019ko irailaren 26an burututako saioaren akta onartzen da aho batez.

2.- 2020ko ordenantza fiskalak.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako hamar korporakideen aho bateko aldeko botarekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENA.- Ogasun Batzorde Informatiboak Udal Zergen eta Tasen Ordenantza Fiskal Arautzailen tarifak aldatzeari buruz eginiko proposamenak akordio bezala onartzea, eranskinean jasotzen den moduan, 2020. urteko urtarrilaren 1etik hasita indarrean sar daitezzen.

BIGARRENA.- Aurreko puntuan azaldu diren akordio hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan jendaurrean jartzea 30 lanegunetan zehar, sor daitezkeen zuzenketa edo erreklamazioak egin ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Hartutako erabakiak eta Ordenantza aldaketak, zein bere eranskinak, behin betikoak izango dira beste akordio baten beharrik gabe, jendaurreko legezko epea iragan ondoren inolako zuzenketa edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz.

3.-Euskara ikasteko laguntzaren araudia.-

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako hamar korporakideen aho bateko aldeko botarekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENA.- Euskara eta hezkuntza batzorde informatiboak aurkeztutako Euskara ikasteko diru-laguntzen araudia onartzea.

BIGARRENA.- Aurreko puntuan azaldu den akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan jendaurrean jartzea 30 lanegunetan zehar, sor daitezkeen zuzenketa edo erreklamazioak egin ahal izateko (udaletxeko erregistro orokorrean bulego orduetan). Azkenengo eguna larunbata edo jai eguna suertatuko balitz, epea hurrengo baliiodun egunera luzatuko da.

HIRUGARRENA.- Hartutako erabakia, behin betikoa izango da beste akordio baten beharrik gabe, jendaurreko legezko epea iragan ondoren inolako zuzenketa edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz.

4.- Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzarekin hitzarmena.

Hitzarmen honen xedea da GGLak MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako Udalerriaren batean errolatuta egoteko beharrendaren eskakizunaren gainean



ZESTOAKO UDALA

datu pertsonalak erabiltzeko baldintzak ezartzea, baita GGLAk mantendu behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartzea ere.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako hamar korporakideen aho bateko aldeko botarekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENA.- Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritza eta Zestoako udalaren hitzarmena onartzea eta Alkatea ahalbidetzea hitzarmena sinatzeko.

BIGARRENA.- Hitzarmena sinatu eta Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzara bidaltzea.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena argitaratzea.

5.- Pagoetako Parke Naturaleko Patronatuan Zestoako Udaleko ordezkariaren izendapena.

Alkateak adierazi du, Pagoetako Parke Naturala, Aia, Zarautz eta Zestoako lurretan kokatzen dela, eta gehitu du, orain arte Zestoak ez duela ordezkariarik izendatu izan partzuergoan. Izendapena egiteko eskaera iritsi omen da eta, ondorioz, alkatea izatea ordezkaria proposatzen du.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako hamar korporakideen aho bateko aldeko botarekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENA.- Pagoetako Parke Naturaleko Patronatuan Zestoako Udalaren ordezkaria, alkatea izendatzea.

BIGARRENA.- Erabakia Pagoetako Parke Naturaleko Patronatuari jakinaraztea eta argitaratzea.

6.- Kataluniako adierazpen instituzionala.

"Zestoako Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriaren 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegizkoa izan zela, eta Kataluniak eta Euskal Herriak berezkoa dutela etorkizuna erabakitze eskubidea.

- *Zestoako Udalak argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Espainiako Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.*
- *Zestoako Udalak nabarmentzen du Kataluniako 'Procés'-aren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.*
- *Zestoako Udalak azpimarratzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere, herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten du. Eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. artikulua ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten*



ZESTOAKO UDALA

dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarriz erantzuten dio, irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordez eta herriari galdetu beharrean.

- *Zestoako Udalak Estatuko botereei eskatzen die, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utz ditzala eta, era berean, erbesteratu politikoen aurkako auzibideak bertan behera utz ditzala.*
- *Zestoako Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei, hala nola, Kataluniako herriari eta erakundeei, eta Zestoako herritarrei dei egiten die bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.*

Zestoan, 2019ko urriaren 24an"

Ondoren, Udal Batzarrak, saiora bertaratutako hamar korporakideetatik seiren aldeko botoarekin eta lauren abstentzioarekin adierazpen instituzionala onartu dute.

7.- Galdera eta erreguak

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du, kirol mahaian esan zen moduan, urriko bigarren hamabostaldian irekiko dela kiroldegia. n behin behinean zegoena eta bi hilabete egon den itxita berria ireki arte.

G.k hartu du hitza ondoren eta galdetu du zergatik ez den bizikidetzako batzorderik bildu. Alkateak erantzun dio, tartean uda izan dela eta plaza berriaren kudeaketa izan dela arrazoia.

Ondoren G.k sozioekonomia batzordeaz galdegin du. Alkateak, legegintzaldi berria hasi dela eta gauzak antolatzen denbora pasa dela erantzun dio. Batzordeko partaidearekin adostu dela gaineratu du. Aurreko legegintzaldian batzorde batzuk urtean behin bildu zirela erantzun dio.

Ondoren J.M.k hartu du hitza eta adierazi du, kale garbiketari buruz, zentroa egunero eta inguruak astean bi edo hiru aldiz garbitzen direla, teoria bakarrik dela. Errealitatea ez dela. Alkateak hartu du hitza eta gogorarazi du, hau osoko bilkura bat dela eta batzordeak egiten direla, eta batzordeetan hitz egin behar dela arazo hauei buruz, efektibitateari dagokionez.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko bederatziak eta bederatzi minutu direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. e.
ALKATEAK,